




Ciudades
Amigas
de la Infancia

HAUR ETA NERABEEK TESTUINGURU LOKALEAN PARTE-HARTZEKO OHARRAK





G. Arandaren (koord.) "Bases para un debate sobre la participación infantil en el ámbito local" dokumentuaren egokitzapen eta eguneratzea.

Nork egina:

UNICEF Espainiako Batzordeko Politika Lokal eta Partehartze sailak egina
Mauricio Legendre kalea, 36. 28046 Madril

Haurren Lagun diren Hiriak programa



t



Diseinua eta maketazioa:
Grupo Cooperativo Tangente

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak, bere 12. artikuluan oinarri nagusi du munduko haur guztiak osoko eskubidea duten subjektuak direla eta, era berean, berau sinatzen duten Estatuei eskatzen die 1) kezkatzen dieten gaiei buruzko euren iritzi askeak emateko eskubidea bermatzea berau egiteko egoera onean dauden haurrei eta 2) iritzi horiek modu egokian kontuan hartuak izatea ematen dituen haurraren adin eta heldutasun maila kontutan izanik.

Helburu honekin, 12. artikulua haurra entzuna izatea bermatzeak duen beharrezan eskatzen du, bai zuzenean bai egokia den organo baten bitartez, eragiten dieten prozedura guztietan. Modu berean, 13 eta 17. artikuluek adierazpen askatasun eskubidea azpimarratzen dute, bai pentsamenduzkoa, zein erlijio edo kontzientziazkoa, bere bizitza pribatuan esku-sartzearen aurka emandako babesa, elkartze eskubidea eta informazioarekiko sarrera eskubidea.

UNICEF Espainiako Batzordearen Haurren Lagun diren Hiriak ekimenak (<https://ciudadesamigas.org/>) haurren ongizatea hobetzeko politika publiko eraginkorren gauzatzeko eta diseinuan laguntzen du, haurren eskubideak defendatuz, euren parte-hartzea sustatuz eta hiriak bizitzeko egokiak diren gune bilakatuz, batez ere gazteenentzat. Horretarako, 5 helburu betetzea planteatzen da:

1

Haur bakoitza balioetsi, errespetatu eta modu justuan tratatua izango da bere autonomia erkidegoen barne.

2

Haur bakoitzaren ahots, beharrian eta lehentasunak entzun eta kontuan hartzen dira legedia eta politika publikoetan, aurrekontuetan eta eragiten dieten erabaki guztietan.

3

Haur guztiek daukate kalitatezko oinarrizko zerbitzuetarako sarbidea.

4

Haur guztiak bizi dira testuinguru seguru eta garbietan.

5

Haur guztiek daukate familia-bizitza, joko eta aisiaz gozatzeko aukera.



Haur eta nerabeen parte-hartzeari dagokionez, Haurren Lagun diren Hiriak ekimenak haurrek euren udal-testuinguruan bereziki parte-hartzeko duten eskubidea gauzatzera bultzatzen ditu, baita udalez gaidiko¹ testuinguruetan ere, denontzako toki hobean bilakatuko den udalerrira lortzeko ekarpenak eginez.

Haur eta nerabeen parte-hartze prozesuak dituen **onurak** anitzak dira:

- Haurren garapen egoki eta autonomia pertsonalean eragiten du. Hezkuntza eta garapenerako tresna da, ahalmenak indartzen dituena, konfiantza sortarazten duena eta haurrak osozko eskubidea duten subjektu legez identifikatzea ahalbidetzen duena.
- Euren iritziak ezagutaraztera ohituta dauden haurrek eta iritzi horiek kontuan hartuak izango direla badakitenez abusu eta tratu txarrak salatzeke erraztasun gehiago daukate, beraz parte-hartzea norbere babeserako tresna legez ere planteatzen da.
- Haur eta nerabeen erresilientzia mekanismoetan eragina du. Parte-hartzea erreminta garrantzitsua izan daiteke biktimizazio, pasibotasun eta isiltasunetik irteteko. Hori dela eta, babes testuinguruetakoko parte-hartze prozesuek haur eta nerabeengan erresilientzia trebetasunak sustatzeko balio dute.
- Bestalde, haur eta nerabeen parte-hartze prozesuen sorkuntza inklusioa sortzeko funtsezko erreminta izan daiteke, berdintasunaren aterkipean taldeko prozesu bateratu bat eraikiz.
- Azken finean, demokrazia eraikitzearen prozesuaren hobekuntza, parte-hartze eskubidearen bitartez haurrek familian, eskolan baita euren komunitateetan ere rol aktiboa dutela sentitzen dutelako, norbere burua aldaketarako aktore sozial moduan ikusiz, tolerantzia oinarritutako jarrerak izanik, hiritartasun global, justizia eta partaide-izate sentimendu handiarekin eta ezberdintasunak kontutan izanik.

¹ Parlamentu autonomikoetan, eskualdeko topaketetan, Foru Aldundi, Kabildo eta Irlako Kontseiluek sortutako espazioetan, besteak beste.

2 Nola sustatu haur eta nerabeen parte-hartzea



Haur eta nerabeen parte-hartzea euren testuinguruko beste pertsona batzuekin hartu-emanetan eta euren bizitzan, bai indibidualki bai kolektiboki, eragiten dieten gaiak jorratuz burutzen duten prozesu legez ulertzen dugu. Prozesuan zehar, komunitatean funtsezko papera betetzen ari direla sentitzen dute neska-mutilek.

Haur eta nerabeen parte-hartzea eragiteko, nahitaezkoa da helduek parte-hartzea eskubideen ikuspuntutik uler dezatela eta beronekin sentsibilizatuta egotea. Horrez gain, parte-hartzea maila guztietan dagoen zerbait natural modura ulertua izan behar da, beharrezkoa denean edo erantzukizun partekatua suposatzen duenean neurri bereziak izanik.

Haurrengana hurbiltzeko modu onena zuzeneko harremana da, egunerokotasunean eta eurengan eragiten duen gauzetan. Auzoan, udalerrian, gelan, familiako erabakietan edo kalean; horiek dira parte-hartzea sustatzeko toki naturalak. Orokorrean, gertuko ingurua da haurrak hobeto inplikatu daitezkeen lekua eta bertan hobeto ikus ditzakete inplikazio horren emaitzak. Modu horretan, nahitaezkoa da euren proposamenak eurenak egitea, gauza konkretu eta errealetatik abiatuz eta parte-hartze prozesuan proposamen horietarako kontuak ematea sustatuz.

<p>Haur eta nerabeekin lagunkoia, bai espazioetan baita metodologietan ere.</p>	<p>Babeslea, segurua eta arriskuekiko sentikorra: langileek abusu edo esplotazio edo beste edozein eragin negatibo gutxiagotzeko neurri guztiak hartu behar dituzte.</p>
<p>Inklusiboa: talde ahulenei parte hartzeko aukera eman behar diete, bazterkeriak ekidituz eta gai kulturalerekiko sentikor izanik.</p>	<p>Eskubideen ikuspegiarekiko hezkuntza eta sentsibilizazioa duten langileak izan behar ditu, jarraipen prozedura, ebaluazio eta kontuak ematea edukiz.</p>

Parte-hartzea izan beharko da:

<p>Gardena eta arduratsua: haurrek informazio guztia izan behar dute sarbide errazeko formatu lagunkoietan.</p>	<p>Errespetuzkoa: haurrak errespetuz tratatu behar dira eta euren iritzia modu askean adierazi ditzakete.</p>
<p>Borondatezkoa: haurrek parte hartu nahi duten ala ez erabakitze ahalmena izan behar dute (parte-hartzea eskubide bat da, ez betebeharra).</p>	<p>Aipagarria: parte-hartzea haurrek duten ezagutzatik abiatuz eraiki behar da eta euren intereserako garrantzitsuak diren gaitan ardaztu behar da.</p>

Haur eta nerabeen parte-hartzea sustatzeko kontutan izan behar da **entzute enpatikoaren** garrantzia: lehenbizi egin beharreko ekintza garrantzitsuena hurrei paper protagonista ematearena da, hitza eman, iritzia ematea ahalbidetu helduek entzuten duten bitartean ulertzeko xedeaz eta esaten dutena kontutan izateko borondate sutsuaz. Entzute aktibotik elkarrizketa bat hasi ahal izateko, nahitaezkoa da galderak haur eta nerabeen kodigora moldatzea.

Bestalde, **rol dinamizatzailearen** garrantzia, haur eta nerabeen arteko elkarrizketa errazten duten espazioak, haurren arteko iritzi-trukeak eta interakzioa sustatuz, haurrek bere kabuz kudeatutako espazioak sortuz eta haurrak eurak proposatutako gauzak bere eginez.

Eta **parte-hartzea jarraipenezko prozesu** modura ulertuz. Ziurtatu egiten diren ekintzak puntualak izan ez daitezzen, eta parte-hartzea jarraipenezko lan-eremu moduko logika bati erantzuten dion zerbait izan dadila. Modu horretan, parte-hartzea pertsona eta taldeen arteko komunikazio esparruan ulertuko da.

3 Udal-esparrura egokitutako haur eta nerabeen parte-hartze prozesuak sortzeko gomendioak



Maila lokalean sustatzen da.

Udalerrriak parte-hartze mekanismoak indartzen ditu eta/edo dauden azpiegiturak batzen ditu, haur eta nerabeen iritzia ezagutu eta kontuan hartzeko helburuaz, euren interesekoak diren gaiei buruz.

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren planteamenduekin bat egiten du.

Hau da, haurren eskubideen aplikazio globala sustatzen du, bere adierazpen moduekiko errespetuzkoa, zehatza, posiblea eta baliozkoa izanik. Parte-hartze borondatezkoa eta informatua izan behar da.

Haurren ahotsa kontutan izaten da Udalean bertan edo gobernu lokalean.

Haur eta nerabeen iritzia, loteslea izan ez arren, kontuan hartzekoa izan behar da. Udalerriek parte-hartze hori esparru guztietan sustatzeko beharrezko espazioak sortu behar dituzte. Haur eta nerabeen parte-hartzea gobernu ekintzetan udalerriko agintariek duten balorazio eta erabaki hartze prozesuetan elementu bat gehiago balitz sartzen da. Haur eta nerabeek benetako parte-hartze esperientzia eraginkorra bizitzeko aukera daukate, eragin praktikoak izango dituen, hots, euren iritziek ekintza konkretuak dituztela ikusirik.

Mekanismo iraunkorra da.

Beharrezkoa da parte-hartzea iraunkorra izan dadin formulak bilatzea, behin-behinekoa izan ez dadin, ez dadin gertaera bakan edo apaingarrian geratu. Testuinguru horretan, beharrezkoa da haur eta nerabeek euren parte-hartze eskubidea modu jarraituan gauzatzeko mekanismoak sartzea.

Noizbehinkako batzarrekin eta inklusioa sortuz.

Ahal den neurrian udalerriko haur eta nerabe talde guztien adierazgarritasuna ziurtatzea, talde baztertu edo ahulenen parte-hartzea indartuz. Garrantzitsua da parte-hartze inklusiboa izatea. Beste alde batetik, haur eta nerabeen parte-hartzerako espazio propioak sustatzeak, helduen laguntzarekin, baina interbentzionismoa alde batera utzirik, konfiantza eragiten du, baita berezko proposamenen sustatzea ere.

Partekatzeko espazioak daude gobernu lokal eta haur eta nerabeen artean.

Beharrezkoa da haur eta nerabeei erabakiaren inguruko informazioa helaraztea eta euren proposamenak kontutan izateko ala ez izateko egondako arrazoiak jakinaraztea. Garrantzitsua da ideia guztiak errespetatu behar diren mezua helaraztea, babes gehiago edo gutxiago izatea alde batera utzirik, pertsona bakarrak edo askok defendaturik kontuan hartuak izango direla.

Ekintza konkretuak sortzen ditu.

Ekintza konkretuetara edo ondoriorik eragiten ez duten parte-hartze espazioak ekidin beharra, horrek frustrazio eta gogogabetasuna baino ez baitakar. Haurren parte-hartzea Udalaren beraren aginpide diren gaiei lotuta egon behar da, eta haur eta nerabeen adin eta heldutasun-mailara egokitutako parte-hartzea izan behar da. Udalaren aginpidez haratago doazen gaiak izanik, egon zitezkeen mugatzeen inguruan erantzuna eman beharra dago eta/edo administrazio publikoak duen lehiakortasun zikloaren inguruko informazio argia eman.

Parte-hartzea edozein zeregin edo gobernu lokalaren erantzukizunekin lotuta egon daiteke, esate baterako:

- **Politika lokalen erabaki hartzeetan.**
- **Datuen pilaketa.**
- **Planifikazio prozesuetan eta aurrekontu jardunean.**
- **Zerbitzuen kalitatea monitorizatzea.**
- **Politika, programa, proiektu eta/edo zerbitzu lokalen lorpenak ebaluatuz.**



Haurren Lagun diren Hiriak ekimenak haur eta nerabeen parte-hartzea Haurren Plan Lokal baten bitartez antolatutako haurren udal politikaren parte modura osatzen du, zeinetan udalerriko haur eta nerabeak beronen diseinu eta garapenaren parte aktibo izan beharra duten.


4 Haur eta nerabeen parte-hartzerako azpiegituren funtzionamendua maila lokalean

Haur eta nerabeen parte-hartzerako azpiegiturak indartzeko garrantzitsua da haur eta nerabeek batzeko berezko espazioak izatea. Bere funtzionamendurako baliabideak izan behar dituzte eta laguntza bideratzaileak. Hala ere, azkenengo helburu modura haur eta nerabeek euren kabuz kudeatzea litzateke egokiena, jabetze eta funtzionamenduaren autorregulaziorako.

Haur eta nerabeen parte-hartzerako azpiegiturak 6 eta 17 urte bitarteko haurrak hartzen dituzten euren baitan; hala ere, parte-hartze organoetan egoten diren haurrak 9 eta 16 urte bitartekoak izaten dira gehienetan.

Haur eta nerabeen parte-hartzea udalerrian dauden haur kopuru eta aniztasunaren adierazgarri izan behar den arren, prozesua gradualki hasia gomendatzen da, parte-hartze taldea handiagotzen joateko denboran zeharreko estrategia bat planteatuz. Parte-hartze batzarretan parte hartzen duten pertsona helduek estrategia eta eztabaida-taldeak gidatu eta koordinatzeko ahalmenak izan behar dituzte, iritzi pertsonalak mahai gainean jarri barik.

Dena dela, **bi espazio desberdin izatea aholkatzen da: alde batetik, haur eta nerabeen bilketarako espazio bat eta, bestetik, talde eta gobernu lokalaren arteko interakziorako beste espazio bat.**



Garrantzitsua da formalki bere funtzionamendua onartzea gobernu lokal eta haur eta nerabeen parte-hartze taldearen arteko interakzioari legezkotasuna emateko. Horretarako, hurrengo hau kontutan izatea aholkatzen da:


- Aldizkako batzarrak egin, zeinetan haur eta nerabeek agintari politikoekin (Alkatetza eta/edo Zinegotzigoak) elkarri eragin diezaioketen.
- Haurrei proposamenak aurkezteko nahitaezkoa da beharrezkoa den informazio guztia adin taldeei egokitzea.
- Batzarrak haurren beharizan eta errealitatera egokitu behar dira, espazio, ordutegi, eguneko gaiei, etab. dagokionez.
- Euren iritzia kontuan hartzeko aukera erreala egon behar da; hau da, ez eskatu iritzirik amaitutako eta itxitako proiektu baten inguruan.
- Batzarren akta burutu, lortutako konpromisoak idatzita utziz.
- Informazioa berrikusteko nahikoa denbora egotea bermatu beharra dago, eta beharrezko batzarrak izan euren proposamenak gauzatu baino lehen.
- Erabaki eta erresoluzioak adostutakoak izan daitezten ahalegindu behar da. Guztien adostasunik ez baldin badago, bestelako proposamenek izandako laguntza maila idatzita utzi beharko da.
- Modu argian eraiki haurren parte-hartze taldearen eta udalerriko batzordearen arteko harremanak, berauen arteko lotura eta osaketa Araudi batean egonik.
- Aldizkako autoebaluazioa burutu helburuen betetze eta egitura honen funtzionamenduaren inguruan.
- Garrantzitsua da Udalaren aldetik haur eta nerabeen parte-hartzetik datozen proposamenak entzun eta erantzuteko berezko konpromisoa egotea.
- Garrantzitsua da gutxieneko helburuak eta eginkizun zehatzak planteatzea. Esate baterako, hirigintza-aldaketa baten inguruan, zerbitzu lokal berrien inguruan, zuzenean eragiten dien udalerriko proiektu baten inguruan... iritzia eman, eta, bestalde, haur eta nerabeek euren proposamenak esateko aukera izan dezaten.
- Espazio hau bultzatzeko udalerriko sail batek hartutako erantzukizunaz gain, haurren ongizate eta atentzian zeresana duten zinegotzigo ezberdinen arteko koordinazioaren garrantzia azpimarratu beharko litzateke, barne-koordinazio mahaiaren solasaldiak kontuan hartuz.

Modu honetan, haur eta nerabeen parte-hartzerako azpiegituren funtzionamendu egokia bermatzeko, eta kontutan izanik Gobernu Lokalaren interakzioa, garrantzitsua da:

- ✓ **Parte-hartze azpiegituraren onespenezplizitua bermatu** Alkatearen aldetik edo lehenbiziko udalerrri agintariaren aldetik, baita agintari politikoen aldetik ere. Parte-hartze azpiegiturak sortzearen aldeko apustua eginez gero, beharrezkoa da ahalik eta babes handiena ematea.
- ✓ **Beharrezko aurrekontua ziurtatu** parte-hartze azpiegituraren garapenerako, bere funtzionamendurako baliabide nahiko izanik (dinamizazio taldea, batzarretarako tokiak, materiala, logistika...).
- ✓ **Proposamenak modu zehatzean planifikatu eta ebaluatu**, aurretiko analisiak barneratuz, espero diren emaitzak, guztizko edo ez osozko betetzea ebaluatzeko adierazleak, etab. Aldi berean, garrantzitsua da hezkuntza logika batetik abiatutako planifikazio ikuspegia izatea.
- ✓ **Lan taldeko eginkizunetara planifikazio lanak ere gehitu, baita sustatzen dituzten proiektuen ebaluazioak ere**, jarraipen eta ebaluazio prozesu jarraiak barneratuz.
- ✓ Haur eta nerabeen parte-hartze proiektuak gidatzen dituzten pertsonen **informazio eta hezkuntza iraunkor eta egokia bermatu**.
- ✓ Proiektuaren arrakastan eragin dezaketen udalerriko sail desberdinen arteko **koordinazioa bermatu**.
- ✓ Haurren gertueneko errealitatera **egokitu proposamenak**, euren auzoetara esaterako, euren proposamenak gertukoak direla ikus dezaten.
- ✓ **Ikusgaitasuna eta pisu publikoa** eman udalerrian haur eta nerabeen organoari berari bitartekari lokal eta/edo dagozkion espazio publikoen bitartez.
- ✓ Haur eta nerabeen parte-hartzea sustatu **pausuz-pausu** eta helburu zehatzen bitartez. Garrantzitsua da kontuan hartzea lorpen txikiak helburu berriak lortzeko motibazioa ematen dutela, lortu ezinezko jomugek etsipena sortzen duten bitartean.
- ✓ Kontutan izan esparru lokalean gerta zitezkeen haur eta nerabeen parte-hartze esperientziak, berauek indartzeko. Beste alde batetik, **beste mota batzuetako** haur eta nerabeen parte-hartze esperientziak kontuan hartu, beste testuinguru batzuetan, ikasitako irakaspenak prozesuan zehar barneratzeko.



- ✓ **Komunitateko gainerako pertsonak inplikatu** azpiegitura honen gaineko informazio eta ezagutza izan dezaten (familiak, ikastetxeak, erakunde sozialak, etab.).
- ✓ **Metodo ulergarriak erabili**, baita familiarekiko gertukoak direnak ere, teknika egokien bitartez, joko eta espazio ludikoen aukerak aprobetxatuz.
- ✓ **Kontuak emateko mekanismoa bermatu**. Nahitaezkoa da informazioa haurrei modu argi eta zintzoan helaraztea, eta aldizkako gardentasun mekanismoak ezartzea, haurrei proposatutako proiektuen egoeraren berri emateko.
- ✓ **Hartutako konpromisoak bete**. Honek ez du esan nahi haurrek eskatutako guztia egin behar denik, baizik eta informazioa eta erantzun egokia eman behar dela proposamena aurrera joan daitekeen edo ez ongi azaltzeko.



Kontua da haur eta nerabeen parte-hartzea haurren eskubideen ikuspuntutik gauzatzea, modu jarraian eta ikaskuntza eta harremanetarako prozesu moduan, zeinetan entzute aktiboa, interakzioa eta haurren aldetiko jabetzea nahitaezkoak diren hiritartasun aktiboa gauzatu dezaten.

www.ciudadesamigas.org



Ciudades
Amigas
de la Infancia



Aliatuak:

